

PRENTSA OHARRA: 2023.03.22

16 euskal ekoizpen ikusgai izango dira Nantesko zinemaldian

- Hamar film luze, film labur bat eta Kimuak 2022 bildumako hainbat lan eskainiko ditu jaialdiko Fenêtre Basque zikloak

- Zinemaldia martxoaren 23tik apirilaren 2ra bitarte egingo da, eta euskal zinemagileen ordezkari za zabala izango da bertan

Nantesko Festival du Cinéma Espagnol jaialdiaren baitan urtero egiten den Fenêtre Basque (Euskal Leihoa) zikloa Euskal Herritik kanpo aurki daitekeen euskal zinema programazio zabalenetarikoa da. Etxepare Euskal Institutuak babesten duen atal honek urteko euskal ekoizpen nabarmenen eta, oro har, euskal zinemagile garrantzitsuenen lanen hautaketa bat proposatzen du. Aurtengo edizioan, guztira, 16 izango dira martxoaren 23tik apirilaren 2ra bitarte ikusi ahal izango diren euskal ekoizpenak: hamar film luze, film labur bat eta 2022ko Kimuak bildumako bost lan. Bost ekoizpen, gainera, sail lehiakorretan ere egongo dira. Horrez gain, euskal film batek itxiko du Nanteseko Zinemaldiko 32. edizioa.

Mikel Gurreak zuzendutako **'Suro'** (2022) euskal ekoizpena Fikziozko Film Onenaren Sailean lehiatuko da, aurtengo Goya Sarietan bi izendapen jaso eta gero. Gurreak ibilbidea egin du aurretik Nantesko jaialdian, 2022ko jaialdiaren 31. edizioan bere **'Heltzear'** film laburra Laburmetraien Sailean lehiatu baitzen. Oraingoan, landa eremuan kokatutako drama honekin, artelatz basoen artean bizitza berri bat hastea erabakitzen duen bikote baten maitasuna tentsioan nola jartzen duen ikusiko dute jaialdira bertaratutakoek.

Bestalde, Fikziozko Film Onenaren Sailean eta lehiaketatik kanpo, Fermin Muguruzaren **'Black is Beltza II: Ainhoa'** (2021) animaziozko filma ikusi ahal izango da.

Maria Elorzaren **‘A los libros y a las mujeres canto’** (2022), aldiz, Dokumental Onenaren Saria eskuratzeko lehiatuko da. Elorzaren lehenengo film luze honek emakumea islatzen du, oraina iraganarekin lotuz eta oso modu arinean gai sakonetan barneratuz.

Alauda Ruiz de Azúak zuzendutako **‘Cinco lobitos’** (2022) opera prima Premiers Film Saria eskuratzen saiatuko da. Zaintzaren inguruko film honetan Amaiaren historia kontatzen da, ama izan berri den emakumearena.

Icíar Bollaínen **‘Maixabel’** (2021) filmak, Fenêtre Basque ataleko partaidetza errepikatuko du aurten ere. Nantesko Zinemaldiko aurreko edizioan Fikziozko Film Onenaren Saria eta Publikoaren Saria irabazi zituen Maixabel Lasaren bizipenetan oinarrituta dagoen filma. Aurten, Compétition Scolaires (Eskola Lehiaketa) sailean lehiatuko da.

Fenêtre Basque-ko film luzeen sorta osatuko dute Ana Diezen **‘A quien cierra los ojos’** (2022) ikuslegoa hezkuntzaz hausnartzeko Mexicora eramaten duen filmak; Imanol Uriberen **‘Llegaron de noche’** (2022) 80ko hamarkadan kokatuta dagoen askapenaren teologiaren aurkako errepresioaren narrazioak; Jabi Elortegiren **‘El vasco’** (2022) komediak; Iratxe Fresnedaren **‘Tetúan’** (2022) dokumental intimistak; eta Fermin Muguruzaren **‘Black is Beltza’** (2018) animaziozko lanek.

Halaber, jaialdiko film labur onena izateko hautagaien artean Esti Urresolaren **‘Cuerdas’** (2021) lana egongo da. Urresolaren film laburra Kimuak 2022-en (urteko euskal film labur onenak jasotzen dituen bilduma) aukeratutako film laburrak Forqué Sarietan Laburmetrai Onenaren Saria irabazi zuen 2023ko Goya sarietan izendapen bat izan du, besteak beste.

Fenêtre Basque-ren baitan, aurreko edizioetan bezala, Kimuak 2022 aukeraketan jasotako beste lanetako batzuk ere ikusi ahal izango dira: **‘Fe’** (Maidier Fernández, 2022), **‘Hemen bizi da maitasuna’** (Ainhoa Olaso eta Enara Garcia, 2022), **‘Hirugarren koadernoak’** (Lur Olaizola, 2022), **‘Irrits’** (Maidier Oleaga, 2022) eta **‘Lanbroa’** (Aitzol Saratxaga, 2022).

Gainera, jaialdiaren itxiera ekitaldirako, Aritz Moreno zinemagilearen **‘Ventajas de viajar en tren’** (2019) filma hautatu dute edizioari amaiera emateko.

Liburu aurkezpena

Aipatutako euskal produkzioez gain, ‘Euskal emakume zinemagileak’ liburua aurkeztuko da jaialdiaren programazioaren baitan. María Pilar Rodríguez Deustuko Unibertsitateko irakasleak koordinatutako eta Euskadiko Filmategiak editatutako lana da. Liburuak hamahiru testu ditu, lau partetan banatuta. Lehen atalak, ‘Ikuspegi globalak’ izenekoak, emakume zinemagileen ekoizpena aztertzen du. Bigarrenean, ‘Generoak, formatuak eta moldaketak da’ izenekoan, dokumentalak, film laburrak, ekoizpen transnazionalak eta literatura lanen egokitzapenak landu dituzte. Hirugarrenak, ‘Ekoizpena, distribuzioa eta harrera’ delakoak, kritiketan, sarean eta emakumeen zinemaldietan sakondu du. Azkenik, laugarren atalean Ana Díez, Helena Taberna eta Yannick Bellon zinemagileen lanaz hausnartzen da.

Euskal zinemaren ordezkariak

Euskal zinemaren erakusleiko zabal eta heterogeneo honen osagarri gisa, hainbat gonbidatu gerturatuko dira Nantesera egunotan: Ana Díez, Imanol Uribe, Jabi Elortegi, Iratxe Fresneda, Aritz Moreno, Fermin Muguruza, Maria Elorza, Mikel Gurrea eta Ramon Barea.

Horrez gain, nabarmentzekoa da Ana Díez zinemagilea Dokumental Onenaren Sariaren epaimahaikidea izango dela eta Felipe Cabrerizo zinema idazle eta historialaria Fikziozko Film Onenaren Saileko epaimahaiko kide izango dela.

Jaialdiari buruz

1990ean sortu zen Festival du Cinéma Espagnol de Nantes jaialdiaren helburua da Espainiako Estatuan egindako zinea Frantzia zabaltzea da eta horretarako emanaldi zinematografikoez gain ekitaldi ezberdinak gauzatzen dituzte jaialdiak irauten duen bitartean: mahainguruak, arte erakusketak, kontzertuak, etab. Urtero 27.000 ikusletik gora biltzen ditu jaialdiak, baita kritikari eta industriako profesionalak ere. 32. edizio honetan 70 film ikusi ahalko dira eta 40 gonbidatu bertaratuko dira.

Nantes da euskal zinema gehien ikusi eta baloratu den Europako hirietako bat. Horrela, Fenêtre Basque atalak 22 urte beteko ditu aurten eta urteotan, euskal zinemako izen handiak pasa dira bertatik euren lanak aurkeztu eta publikoarekin solasean aritzeko.

FENÊTRE BASQUE

Film luzeak:

- 'A quien cierra los ojos' (Ana Díez, 2022).
- 'Llegaron de noche' (Imanol Uribe, 2022).
- 'El vasco' (Jabi Elortegi, 2022).
- 'Maixabel' (Iciar Bollaín, 2021).
- 'Tetuán' (Iratxe Fresneda, 2022).
- 'Black is Beltza' (Fermin Muguruza, 2018).
- 'Black is Beltza II: Ainhoa' (Fermin Muguruza, 2021).
- 'Suro' (Mikel Gurrea, 2022).
- 'A los libros y a las mujeres canto' (Maria Elortza, 2022).
- 'Cinco Lobitos' (Alauda Ruiz de Azúa, 2022).

Film laburrak:

- 'Cuerdas' (Estibalitz Urresola, 2021).

Kimuak 2022:

- 'Fe' (Maidier Fernández, 2022).
- 'Hemen bizi da maitasuna' (Ainhoa olaso eta Enara Garcia, 2022).
- 'Hirugarren koaderno' (Lur Olaizola, 2022).
- 'Irrits' (Maidier Oleaga, 2022).
- 'Lanbroa' (Aitzol Saratxaga, 2022).

Info+

Amalia Ibagutxi
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus